



(*) Itten: arrastua, pistia

>> INGO XONAU (3)

USARIXUARI BEGIRA

Amaia: Hi lagun artian haguengan, zela egitten dok berba?

Jon: Mutillakin hika, eta neska gehixenakin zuka.

A: Eta hori zergatik dok, ba?

J: Etxakiñat, ba, zela esplikau! Guri halaxe urteten xoskun, hortaz asko pentsau barik!

A: Baiña, arrazuaren bat egongo dok, ba, hor? Pentsau dok sekula?

J: Asmau egin, ba! Gu baiño zaharraguak guri hika egitten xoskunai, eta guk be halaxe jarraitu xonagu, hor etxagon besterik! Baiña egitten dogunian, ixixa betik mutillakin, lehen be esan donat!

A: Eta nerekin zergatik egitten dok, ba, orduan hika?

J: Konfiantzaia dakotelako, hirekin beste modu baten etxostanan urteten!

A: Eta Edurnerekin ezta kok konfiantzarik ala?

J: Bai, baiña ez hainbeste; izan be, harekin gutxiagotan egoten naun, eta etxostanan urteten hain samur! Gaiñera, zuen artian betik zuka ibiltten zarai!

A: Bai, kaletar-kaletarra dok-eta... araoztarra balitzuk, seguru egingo gekela hika!

Eta aitta-amakin edo aittajun-amandriakin zela egitten dok?

J: Hareikin sekula be ez hika. Neri aittak egitten xostan, baiña nik berari sekula santan be ez, eta amari igual, ezta okurriu bel! Aittajunak eta amandriak egitten xostanai, baiña nik eurai burutik pasau be ez!

A: Bai, bai, halaxe dok usarixua. Hi beste kontu bat, badakik zela enterau nintzuan Pello eta Mirari nobixo hasi zirala?

J: Zela jakingo xonat, ba? Ideiarik be etxakonat!

A: Ba, konturatu nintzalako etzirala hika ibiltten, zukara pasau zittuan, eta esan ñuan nere artian: 'hemen baxagon zeozer!' Eta horixe zuan, nobixo hasi zirala!

J: Ba, ni enaun orainddiok horrekin fijau!

A: Bai, ixillian xakuain, baiña nik laister igarri ñostian!

J: Emakumiak betik izan zarai argixaguak... gu Andartora begira egoten gaittun!



>> BILATU BERBA HONEIN SINONIMUAK:

- | | |
|---------------|--------------------------|
| 1. Bentia | A. Aldapa, erripa, malda |
| 2. Zailla | B. Saltokia |
| 3. Samurra | C. Elkartea |
| 4. Aldatsa | D. Seina |
| 5. Txaanpiñia | E. Guda |
| 6. Kartzelia | F. Gaitza |
| 7. Gerria | G. Ostatua |
| 8. Dendia | H. Espetxea |
| 9. Soziedadia | I. Erraza |
| 10. Umia | J. Elgorria |



(*) Itten: arrastua, pistia

>> INGO XONAU (4)

ERLATAN

Amaia: Txakurra hartu eta fango gaittuk hire erlaak ikustera?

Jon: Bai, gura badon! *Truskiri* jareiko txanat eta segittuan fango gaittun!

Hala, *Truski*, guazen etxeko erlaak zela dagozen ikustera!

A: Erlategixa non dakok, ba? Urrin?

J: Kaletik bertan, Torrealden; Torretxebarri baserri ondoko mugatxo baten. Badakin nun dan, gutxi gorabehera?

A: Jakingo etxuat, ba! Gu neskatillak giñanian, denpora danian han ibiltten gintzuan jolasian, e!

J: Guazen, ba, orduan! Bi saltuan aillegauko gaittun! Fiu-fiu, *Truski*!

A: Aillegau gaittuk, ikusten xuat erlategixa! Ekarri xuagu erropa egogixa erlaakin ibiltteko?

J: Preguntaittia be! Ekarri ditxonat bixondako buzuak, guantiak, kareta eta ke-pote bana. Honekin guziarekin nehikua izango don, ezton?

A: Bai, horixe! Nik, gaiñetik, kapotetzar bat be ekarri xuat, baezpadabe!

Jon, erropak jantzitta, erlategira hurreratu da eta *Truskiri* atzian geraketako aginketan xao: Egon hadi atzian! Egon hadi hor geldik! Bi miñutu geruago...

J: Jantzi buzua eta hurreratu hadi erlaak ikustera!

A: Bañoiak!

J: Ikusten dittun erlaak? Eta erregiñia? Eztiabauak bete-beteta xagozan!

A: Arraixua! Hau dok hau edertasuna!

J: Gustaitten xan?

A: Izugarri!

J: Ba, orain ezin xonagu beste ezer askorik egin, baiña beste egun baten etorriko gaittun eztixa etaratera.

A: A, bai?

J: Bai, abauok etxera eruaten ditxonagu eztixa etarateko; hori makiñaz egitten xonagu. Ondoren, eztixa potetan sartu eta gordeten don. Eta azkenik, abau batzuren argizarixa aprobetxaitten xonagu kandelak egitteko edo zoruari lustria emuteko. Lan horreik danak egindakuan, abauok erlaairi bueltaitten xostenagu geratu diran ezti-hondarrak miastu degixein

A: Zer ederki!

J: Eginkizun horreik egitten dittugunian, kontuan hartu biharko xonagu zenbat ezti izten dostegun erlaairi, negua pasaitteko bihar-biharrezkua xonai eta!

A: A, eñakixan holako konturik!

J: Bueno, hori dana hurrenguan esplikauko donat hobeto!



HIZTEGIXA ETA ARGIBIDIAK:

Mugatxo: lurraren beste maillatxo bat, gaintxo bat-edo.

Erlategi, erlategixa: *colmenar*.

Erla, erlia: *abeja* (erla asko, erla gutxi, erlaak) eta baita 'colmena' be (erla bat edo erlia, erlaak) (Erla) anbo, (erla) anbu, edo, erláamo, erláamua: *zángano* (erlamando)

Erregiña, erregiñia: *la reina de las abejas*.

Erlauntz, erlauntza: *colmena*. Lehenago, hustutako anporretan egoten ziran.

Erlakume, erlakumia: *enjambre*

Abau, -a: *panal* (abaraska). Eztiabau bat. Eztiabaia, eztiabaekua: *panal con su cera*

Argizari-opilla: metxia dakon argizari-errollua, elizan ebalten dana.



Erlea Euskal Herrian Erleek Euskal Herrian izan duten garrantzia azaltzen duten testua eta audioa



(*) Itten: arrastua, pistia

>> INGO XONAU (5)

GAZTAIÑERRE-JANA

Amaia: Sasue honetan gustura bai gustura egingo ñekek, ba, gaztaiñerre-jan bat sagardauaz bustitta! Zer pentsaitten xak?

Jon: Nik etxakonat ningunorik! Baiña pentsau don nun eta zeintzuk egingo dogun?

A: Danera, asko jota, sei izan biharko gaittuk, badakik... eta lekuagatik ez larrittu, geure etxian jirauko gaittuk!

J: Primeran, baiña kontuan hartu don zuen etxian ezin dogula gaztaiñak erre, sua egiteko eztaguelako leku egogirik?

A: Hori konponduta xagok: gaztaiñok Aintzaineren baserriaren erreko ditxugu eta geure etxian jan.

J: Bapo! Eta zer gaztaiña erreko xonagu, hemengua bertakua, basuan batutakua ala dendan erositakua? Aldia xagon, e!

A: Aukeran, bertakua, baiña horrek lan gehixago emungo xoskuk, eztok pentsaitten?

J: Denporaz ibilli ezkerro, dana egin lleken: datorren zapatuan kuadrillakuak juntau eta baso buelta bat emunaz gaztaiñak batuko ditxonagu eta hurrengo zapatuan erre eta jan!

A: Ederki! Nik bialduko xostiat washapa lagunai zapatuan geldiketako, heuk esan nora fan bihar dogun.

J: Kortabarri aldia gaztaiña-lekua don eta alderdi horretara fango gaittun; gaiñera, perretxiko batzuk topaitten baditxonagu, horreik be platererako!

A: Horixe, horixe! Menu ona dok: perretxiko-tortillia eta, ondoren, bihar beste gaztaiñerre sagardauaz lagunduta.

**Gaztaiñak erre artian, gaztaiñak erre artian txipli, txapla, pum!
Gabon gaba pozik igaro degigun!**

Hiztegixa:

Unalian fatia: Jabiak gaztaiñak batu ondoren, libre egoten zan harek batu bariko gaztaiña-aliak batzeia; horixe zan unalian fatia.

Gaztaiña klasiak: ahuntz-gaztaiña edo Antzuela gaztaiña, errete jateko ona; bergaramendua; iñurria; sapardua ...

Gaztaiñak koskiu: erre aurretik hagiñakin koskatxua kentzeia gaztaiñari, tirorik jo ez eta hobeto erreteko.

Danboliñian gaztaiñak erre. Lapikuan, gaztaiñak egosi.



>> BILLATU BERBA HONEIN SINONIMUAK:

- | | |
|--------------------------|----------------------------|
| 1. Gibel-haundixa | A. Kakatsua, erdeinagarria |
| 2. Kankaillua | B. Mamia |
| 3. Gogaikarrixa | C. Sarrailla, kisketa |
| 4. Xelebria | D. Gerrikoa |
| 5. Morraillua/morroillua | E. Potro-handia |
| 6. Petriña | F. Handikotea |
| 7. Pasabidia | G. Igogailua |
| 8. Igotekua | H. Bitxia, ez ohikoa |
| 9. Poltsikua, poltsikara | I. Pasilloa, korridorea |
| 10. Gatzatua | J. Sakela, patrika |



(*) Itten: arrastua, pistia

>> INGO XONAU (6)

BERDURA PLAZAN

Jon: Gaur plaza-eguna don eta, fango gaitun zer barri daguen ikustera?

Amaia: Ondo xagok, guazak!

J: Orainddiok be Gabonetan egindako betekadai buelta emun ezindda ñabin eta, ondo etorriko xakun berdura pittin bat erostia.

A: Orainddiok hola habil? Gabonak aspaldik pasau zittuan, e!

J: Egixa don, baiña jan-edanak etxakon akaberarik gure etxian; Errege ostian be euki xonagu frittadaren bat edo beste, eta holakuetan jatiari ezin itzi!

A: Bai, hala dok; izan be, jaten hasten zareñian, garoiñetan be hestiak dittuzuela esan lleikek!

J: Horregatik, ba, orain berdurari heldu bihar txanagu; ia, ba, porru-salda batzuk hartuta irabazittako kiluak galtzen dittugun!

A: Egixa dok, saldia lakorik etxagok: porru-saldia, leka-saldia, berakatz-saldia. Horreik danak onak, barruak garbiketako!

J: Asun-ura be ona dala esaten xonai!

A: Etxakixat, ba! Horrekin kontuz ibilli, odola larregi meheketan xok-eta!

J: Begira, han xagon Maria. Guazan bere postura, ia zer berdura ekarri dauen ikustera!

Maria: Zer bihar dau, ba, parejatxo honek?

J: Urte zaharretik ez kara ikusi eta urte barri on, lehenengo eta behin!

M: Halan ekarri, halan ekarri!

J: Berduratara etorri gara. Zer dako zu, ba, gaurkuan?

M: Danetik ekarri dot, gaur goizian, lehenengo orduan, batuta: azaak, koniflorak, porruak, borrajak... Zein dozue, ba, gustukuen?

J: Neri danak, baiña azia lakorik babiarekin jateko...

M: Ba, babia be badakot. Zenbat ifiñiko dotsut?

J: Amaia, zenbat erosiko xonagu?

A: Kilo bat gutxienez, eta bi azaburu.

M: Besterik? Gaztaia eta intxaurrek be badakot, ba, on askuak!

J: Ifiñi gaztaetxo bat, orduan, itxura oso ona dako-eta! Eta libra eta erdi intxaurre!

A: Ahaztu aurretik, porru-sortatxo bat be ifiñi eta perrejillik badako zu, be bai.

M: Bai, bai, perrejilla badakot, autso sortatxo hau! Tortillan jateko be oso ona dozu!

J: Nahikua izango don, ala? Bestela, Gabonetakua pasauko xakun berriz be: orduan irabazittako kiluak uda arte galdu eziñik ibilliko gaitun, eta hori ezton kontua!

A: Arrazoia dakok!

J: Ondo segi, Maria. Gorantziak etxekuai eta hurrengo arte!

M: Bai, lehenengora arte!





(*) Itten: arrastua, pistia

>> INGO XONAU (eta 7)

GAZTELEKUAN

Xabier: Datorren egubakoitzian kontzierto politta dago Gaztelekuan!

Maidar: Zeiñena, ba?

X: *Mila Modu* herriko taldiarena. Fango gara?

M: Eztakot problemarik, komentauko dostet Amaiari eta Maleneri eta, gura baldin badaue, alkarrekin fango gara.

X: Neuk be Joxiri eta Manuri esango dostet ia etortetik dakoin!

M: Ondo da, horretan geraketan gara.

—Egubakoitzian, kontzertora fan aurretik, danok *Ongi* tabernan kaña banarekin—

X: Zer, hemendik aurrera egingo xonagu?

M: Egin, zer?

X: Berba, hika! Ezton nere txapia ikusi, ala?

M: Zer txapa? A, ba... enauk konturatu! Egin geikek, gura badok!

X: Etxakonat ohitturarik neskakin hika egitteko, baiña saiatuko naun ...

M: Amaia eta Malen, geu be saiatu biharko gaittun, e! Neskon artian etxakonagu-eta ohittura larregi hika ibiltteko!

Amaia eta Malen: Konforme, gaurtik aurrera gure artian betik hika egingo xonagu!

Joxi eta Manu: Geu be apuntaitten gaittun, jo eta ke egingo xonagu hika zuekin!

X: Guazak-guazak kontzertora, honeik beroketan hasi dittuk-eta!



>> BILLATU ADITZ HONEIN SINONIMUAK

- | | |
|-------------------|---------------------|
| 1. Etara | A. Igarri, usaindu |
| 2. Gogait egin | B. Umildu, zapaldu |
| 3. Ugarritu | C. Berri eman, esan |
| 4. Makurtu eragin | D. Nazkatu, aspertu |
| 5. Antz emun | E. Elkartu, batu |
| 6. Jakin eragin | F. Atera |
| 7. Alkartu | G. Xehetu |
| 8. Eballi | H. Higatu, gastatu |
| 9. Txikittu | I. Erabili |
| 10. Marruskau | J. Ugaldtu |



(* Itten: arrastua, pistia

>> PASADIZUA

Zu zara zu, baiña ni naiz BERORI!

Etorri ei zan behin aguazilla baserri maiorazko baten etxera papel bat ekartera, eta esan ei otsan:

- Zu, papel hau ekartera etorri naiz, ayuntamientuan multa bat pagaitteko dakozu eta!

- Eta bestiak, braust!

- Zu zara zu, baiña ni naiz BERORI!!

Harrapo egik/n, ba, hori!



Aguazilla

>> EUSKERAZ EGOGI

BEGIRA EGON

*"Begira nago, begira,
hor goiko bide barrira,
noiz etorriko ete dan
maitea neure herrira."*

Begira egotia ezta betik norabait begira edo zerbait ikusten egotia patxara ederrian; zerbaiten edo baten baten zain edo itxoitten egotia be bada. Hortaz, *zeiñeri edo zeri begira hago?* esaldixak *zeiñen edo zeren zain hago?* be esan gura dau, batzuetan. Hona hemen ejemplo batzuk:

Orain panaderuari, peskateruari edo butaneruari begira nago.

Ha noiz etorriko dan / xatzun begira bazagoz, ederto zagoz!

Hari begira bazagoz, jai dakozu!

Durangon begira eukiko gaizue, hau da, Durangon zuen zain egongo gara.

Egitteko moduan daguena hobeto xagok/n, zeïnek egingo begira daguena baiño!

Dana dala, ezin ahaztu beste leku batzuetan 'zeren begira' be ebalten dala, adibidez: *Erantzunaren begira dago*

>> LETRA-ZOPIA

Ost- sufijua dakoin zenbat berba ezaguketan dozu? Sufijo horrek firmamentuari egitten xao erreferentzia. Ia, ba, letra-zopa honetan dagozen bederatzixak topaitten dittuzun!

Z	E	R	R	O	T	I	A	D	I	D
A	M	A	O	S	T	O	N	D	U	A
J	O	O	S	K	L	O	O	L	A	R
F	O	S	T	A	I	E	S		A	A
O	S	T	A	R	G	I	T	T	U	T
R	T	R	R	B	A	R	A	U	K	U
M	A	A	G	I	R	R	R		R	L
O	I	I	I	X	I	O	T	U	A	U
I	Z	X	X	A	X	K	I	U	T	A
A	I	A	A	X	A	S	A	M	S	B
S	A	N	U	A		O		E	O	I



(*) Itten: arrastua, pistia

>> KONTU KONTARI

KRIAUTZAIA

Mutiko batek kriau fan bihar eben eta eukan hiru etxe ikusteko. Batera fan zan, eta esan otsan maiorazkuak: “*ba, hemen lana, badakik, baserrixa ta ...; bi txarri hiltten dittugu, baiña, bi txarri hil eta... urdaiazpikua ja gastauta dakogu, hau punta hau bakarrik geraketan xaku*”.

Etxekuak
laixan

Eta, bueno, hangua ikusi eben ta ... fan zan beste etxe batera. Beste etxe batera fan da ta... : “*ba, hemen baserrixan lana egoten da, txarrixak be hiltten dittugu, eta hemengo kartia badakitzu nola izaten dan: urdaiazpi, urdaiuntzo, bat hasitta eta bestia gastauta, bat hasteko eta bestia hasitta*”.

Irixak lotuta
lanerako gertu

Hangua ikusitta, beste etxe batera fan dira ta ...: “*hemen lan asko egoten da, urdaiazpikorik be eztagogu, danak harixak bakarrik, hauxe puntatxo hauxe, bi txarri hiltten dittugu, baiña! Urdaiazpikorik be eztagogu ta ...*”

“*Ba, hementxe geldittuko naiz!*”

Famelixa dana
ateetan

Ta esan otsan amak: “*nola geldittu haiz, ba, hor? Urdaiazpikorik be etxakuai!*”

“*Hemen lan asko dakoilla ta ... Urdaiazpikorik eztago! Ba, hementxe geldittuko naiz, zeatik urdaiazpikuak jan dittueillako, eta bestietan jan balittue, ez zittuein eukiko!*”

Kontalarixa: Murgialdaiko Maritxu Altube Irizar (1929-2014)



(*) Itten: arrastua, pistia

>> HISTORIA TXATALAK

PESETERUARENA

Arantzazu erre eueiñekua, Txarrasko aittajunaren kontakizuna

Arantzazu aldizkarixan, 1968ko ilbaltzian, Arantzazu erre eueiñeko idazlana agertu zan, Esteban Arriaran jaunak, Txarrasko ezizenekua, Aitta Villasanteri kontautakua. Hauxe dozue orduko testua herriko euskeran jarritta:

Hemen zerbait hartu guran etorri xat aitta Villasante frantziskotar argi eta zintzo hau nik dakittena esateko asmuan guraso zaharrai entzunda. Lehenengo hasiko gara Arantzazu erre eueiñetik:

“Gure zaharrak esaten eueiñez, Arantzazu erretiaz pena, nahigabe, tamal haundixa hartu euen danak, baiña batez be Oñatiko herrixak. Rodil gaiztua etorrela jakin eueiñian kontzejal egozenak —gure aittajuna izan bihar zan bat— sakeaitteko asmuan etorriko zala-eta, alhondigan egozen zaragixak gure bodega zaharrera ezkutau ei zittuain. Gabe hartan Antzuelako semia Iñurrigarro (apenas izan bihar eben pieza zuzena) Rodillen ordenaz fan ei zan Arantzazura pesetero soldaduakin, peseteruak esaten otsaiñakin. Honeik pesetero honeik izan bihar euen dirutan pagaitten zittuanak Gobiernuak. Peseta bat jornala eukaillako peseteruak esaten ei osten. Arantzazura fan eta bapo jan eta eran egin ondorian, aitta Guardianuari esan ei otsan erre egin bihar ebela Rodillen ordenaz, eta Ama etara gura baeuein etarateko, eta bestela ezeguela ezertarako astirik. Hala su emun eta Ama etara ei euen eta fraile gizajuak negarrez oiazeilla Oñatiratu ei ziran. Eta kondaira-edo entzuna da, baiña gure amandriak esaten eben pesetero batek zela baionetiarekin egin otsan Amari, harek be ikusi bihar ebela-eta; eta nardapera amilddu eta han lehertu ei zan. Kalera etorri ziranian, pesetero haren faltia igarri ei euen”.

Hiztegixa

Tamal: pena, nahigabe
Zaragi: zahagi (= odre, pellejo)
Antzuela: Antzuola
Kondaira: ipuin

Narda: erripa handia eta zikina
Amilddu: jausi, erori
Lehertu: errebentatu
Igarri: antzeman



Lehenengo gerra karlistia (1833-1839)



Arantzazu, 1870 aldera



(*) Itten: arrastua, pistia

>> **EZ LOTSATU, EZ KIKILDDU****Igualeko!** [gualeko!] entzuten da gehixenetan

Zein ondo gagozen adierazteko, badogu espresio bat oso geuria eta oso praktikua, esateko billurrik izan bihar eztoguna: **Igualeko!** Hauxe da bere esanguria: oso ondo edo lehen baiño askoz hobeto gagozela, edo, beste era batera esanda, oraingo egoeriak antzik be eztakola aurrekuarekin, hobia dala alegia.

Ikusi degigun ejenplo batzuk eta alkarrizketa bat:

- San Martin auzuan **igualeko bizi nauk/n**. Kale Zaharraren aldian, han bai pakia!
- **Igualeko geratu haiz** bazkaldu eta gero!
- **Igualeko ñagok/n** ni hamar kilo flakau ondoren, antxintxika egitteko moduan!
- Operau ondoren **igualeko xabik/n!** Konparazioerik be ez!
- Aitta-amen etxian **igualeko bizi don/k** ulixa, bazkarixa egindda eta erropia plantxauta!

Bi langille barriketan:



Malen.- Zer moduz habil, ba, tailler barrixan?

*Jon.- **Igualeko ñabin!** Orainguan dana automatizauta xakonagu bai, eta etxonagu izardi haundirik etara bihar izaten.*

*Malen.- Horixe **igualeko**, orduan! Nik betiko moduan egitten xuat lan: goizetik, zortzietatik hamabittara, eta arratsaldetik, ordu bittatik seietara. Zortzi ordu eta kitto!*

*Jon.- **Jo, igualeko habil hola!** Ni, berriz, bi eta hiru errelebotan ibiltten naun jeneralian, eta betik barregarri.*



(*) Itten: arrastua, pistia

>> EUSKERAZ EGOGI

Labesuan egindako ogixa

Eroslia: *Ogi bat, faborez.*Saltzaillia: *Egurrezkua?*Eroslia: *Ez, hoba urunezkua!*

Danok dakigu egurrezko ogirik eztaguela, orain arte ezagutu ditugunak, behintzat, urunez, azkarriz, urez eta gatzez egindakua izan dira eta.

Oraindiok be labesua egitten dan etxietan, lehenengo aittatutako osagai horreik hartu, gero eurak bihar dan moduan nahastuaz oria egin, ondoren lotan itzi eta, denporagarrenian, harroketan danian, ondo berotutako labian erreten da. Eta labia beroketako lizar-abarrak edo bestelako egurrak ebalten dira, hain justu be, labia ladrilloz egindda daguelako eta ez egurrez, eta hori erregeixaz berotu bihar dalako, ogixa izango bada.

Hortaz, ez ogixa, ez labia egurrezkuak ez tiranez, zela izendau biharko geuke egurrez berotutako labian erreten dan ogixari? **Labesuan egindako ogixa** aukera ona izango litzake; izan be, egurrez egin izan da betik labesua, zuztarra dako eta, gaiñera, ondo sartzen da begittatik eta belarrittatik. Beraz:

Eroslia: *Ogi bat, mesedez.*Saltzaillia: *Labesuan egindakua?*Eroslia: *Bai, horixe!*

Lehenagoko labia

Labesua egin = ogixa egin

Azkarrixa = legamia; *levadura*

>> JAKINGARRIXA

Herriko zein auzotan dagoz 'soro' (1) izenagaz osotutako baserri- eta leku-izen honeik?

1. Jausoro 2. Mojasoro
3. Gastiasoro 4. Soroandietta (2)
5. Lopiasoro 6. Ziarsoro
7. Ormaisoro 8. Goiensoro
9. Epersoro 10. Artasoro 'Artaso'

- a. Larraña b. Arantzazu
- c. Lezesarri d. Murgixa
- e. Araotz f. Olabarrieta
- g. Uribarri

(1) Soro: boldaatutako sailla
(2) [Soranditta]